

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure proiektuak aurrera egin dezan hainbat funtsezko baliabide beharko ditugu, eta baliabide hauek hiru multzo desberdinetan banatu ditugu: fisikoak, materialak ez direnak eta giza baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, dantza eskola jartzeko espazioa izango duen lokal bat izango da garrantzitsuenetariko bat. *DARGIA* enpresak ez du produkturik ekoiztuko, eskaintzen duguna zerbitzu bat da eta: dantza ikastaro bat. Beste enpresa batek eginiko kamixeta pertsonalizatuak ere salduko ditugunez, kamixetak ere baliabide fisikoak direla diogu. Bestalde, gure proiektu honetan esanguratsuena izango den baliabide fisikoa, dudarik gabe, energia sortzeko erabiliko dugun lur zinetikoa izango da. Lur hau Pavegen nazioarteko enpresari erosiko diogu, eta berrogei plaka erosiko ditugu.

Halaber, baliabide fisiko hauekin amaitzeko, lokalerako hainbat baliabide behar izango ditugu: altaboz batzuk musika jartzeko, koloretako led argiak eta gauzak utzi ahal izateko egurrezko banku bat.

Baliabide ez-materialei dagokienean, sare sozialak eta webgunea soilik izango ditugu. Hemen, noski, gure Instagrameko kontua dugu, garrantzi handikoa izango dena *DARGIA* izena ezagutarazteko eta bezero potentzialak erakartzeko.

Azkenik, giza baliabideen inguruan hitz egiterakoan, enpresako hiru sozioek eta kontratatuko dugun dantza irakasleak osatzen dugu baliabideen multzo hau. Sozioak Mikel Alberdi, Goiatz Aguado eta Naroa Egaña gara, eta bakoitzak hainbat funtsezko jarduera dauzkagu zeregin moduan.